

Disney+en Balenciagari buruzko telesailaren filmazioa amaitzear




Goenaga, Arregi eta Garaño, seriearen zuzendariak.

ALEX ABRIL



Antonio San Juanek Balenciagarena egiten du.

ALEX ABRIL



Getariako jostuna bere atelierrean.

SERGIO BASURKO

Okerrik ezean, bi aste eta bi gau besterik ez dira gelditzen Balenciagari buruz filmatzen ari diren telesailaren grabaketa amaitzeko. Izan ere, ekaina hasieratik daramate Donostiako kaleetan grabatzen. Aurrez, grabaketak burutu zituzten Parisen eta Bor-

delen. Getarian ere grabatu zuten egun batez, jostunaren jaioterrian. Sei atalen edizio lana iritsiko da gero. Atal bakoitzak 50 minutuko iraupena izango du eta estreinaldia 2023rako espero da.

Moriartikoez urtebetez garatu zuten gidoia, Lourdes Igleziasekin batera, eta dagoeneko 16 aste dara-

mate filmatzen. Filmazioa hamabost egunetan amaitzea aurreikusten da. "Arregik, Garaño eta Goenagak asko inposatzen dute", ziurtatu du Igleziasek, eta ondoren gaineratu du Balenciagari buruzko "mito asko" argitu behar izan dituen idazketa prozesua "zirrargarria eta oso aberasgarria" izan dela; hala ere, jostunaren izaera

erreserbatuak idazleak egoera jakin batzuen inguruan "fabulatzera" bultzatu ditu. "Askok dibertitu eta sufritu dugu", ziurtatu du gidoilariak.

"Zorroztasunez eta errespetuz jokatzen saiatu gara pertsonaiarekin", azaldu du Goenagak. Izan ere, zinemagile hirukoteak "askatasun osoa" izan du plataformaren aldetik "bio-

pic-etik harago" joateko eta, pertsonaiaren erretratu psikologikoa egiteko, aldi berean ikuslea identifikatuta sentitzeko moduko istorio unibertsal bat garatzea bilatu dutelarik. Zehazki, jostunaren "egiletzari" eta "kontrolari" buruzko istorio bat idazten saiatu dira. "Balenciaga hiperkontrolatzailea zen eta kontrol faltaren aurrean frustratu egiten zen", azaldu du Garañoak.

Euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz filmatua, eta Getariako jostunaren eta, batez ere, haren frantziar garaiari erreparatuko dio serieak, 1937an Parisen bere lehen tailerra ireki ondoren. "Ez euskara, ez frantsesa, eta modari buruz deus ere ez dakien norbait aukeratu dute Balenciaga interpretatzeko", esan du Balenciagarena egingo duen Antonio San Juan aktoreak, txantxaren eta seriotasunaren erdibidean.

"Cristóbal Balenciaga mugak zeharkatu zituen ikono lokala da. Talentuaren eta teknikaren ikur bat. Eta hau da gure konpromisoa: mundu osoko ikusleekin mintzatzeko ahalmena duten istorio berdingabeak ekoiztea, gure sortzaile eta ekoizle onenen zigiluarekin", esan du Sofía Fábregas Disney+-ek Espainian duen jatorriko ekoizpenen saileko presidenteordeak.

Azkenik eta primizia modura, musika-bandaren konpositorea Alberto Iglecias donostiarra izango dela iragarri dute.



zinemaldiarekin

**EL
DIARIO
VASCO**

PATROCINADOR DEL 70 FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
70. DONOSTIA ZINEMALDIAREN BABESLEA